

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honen bitartez guk sortutako produktua nolakoa den, nola funtzionatuko duen eta zertarako balioko duen azalduko dizuegu. Azken aldian arroparen erosketarekin dagoen arazoa larria da, beraz, guk proposamen honen bidez konponbide bat aurkitu dugu. Horrela, gure proposamenak arropa berria sortzea ahalbidetuko du, ingurumenari lagunduz eta hondakinak murriztuz.

Hasteko, gure helburua arroparen produkzioa gutxitzea da, arropari beste erabilera bat emateko makina bat sortuz eta bezeroen beharrak hasetuz. Ideia berria da, garbigailu baten itxura duena eta arropa eraldatzeko gai izango dena. Makina honek arropa zaharrak berriro erabiltzeko aukera emango du, erabiltzaileen gustu eta beharren arabera, forma eta estilo berriak sortuz. Hori egitean, arropa berria sortzeko beharrezkoa den materiala gutxituko da, eta ingurumenari lagunduko diogu.

Esan dugun bezala, makinak garbigailu baten itxura izango du, beltza eta karratua. Goiko aldean, 15 hazbeteko pantaila izango du, non arropa diseinatzeko aukera emango duen. Pantailaren bidez, erabiltzaileak arroparen forma, kolorea eta estiloa aldatu ahal izango ditu.



Tamainari dagokionez, txikia izango da etxean edukitzeko modukoa 80 cm altuera, 60 cm zabalera eta 45 cm sakonera. Makina guk diseinatuko dugu, beraz, ezin izango da eraldatu, makina erosiko duten guztiek berdina izango dute. Diseinu praktiko eta eroso da, etxeko edozein tokitan erraz kokatzeko, espazio txikiagotan ere egokitzen dena. Horrela, etxean erabilera erraza eta praktikoa izango du, eta eguneroko beharretara egokituko da. Bestalde, gure gomendioa etxeko toki zehatz batean kokatzea da, hala nola, sukaldean edo gela egoki batean, leku lehor eta seguruan, erabiltzeko eroso izan dadin eta funtzionamendu egonkorra bermatzeko. Gainera, makina isila izango da, etxeko giroan erraz erabil daitekeena. Makinaren barrualdea horratzak egongo dira, jantziak desegiteko eta berriz ere egiteko.

Arropa heraldatzeko prozesua makina honen bitartez izango da posible. Lehenik eta behin, arropa makina barruan sartuko dugu goikaldean izango duen zulo batetik, eta pantailaren bidez botoi bat sakatzuz diseinu eta aldaketa desberdinak egiteko aukera egongo da. Demagun galtza zahar batzuk ditugula eta horiekin jada aspertu garela, pantailan gona berri bat diseinatu eta makina gai izango da galtza horiek desegin eta gona bat egiteko. Makina erraz egokituko da eta beharrezko aldaketak egingo ditu arropan, hala nola, forma aldaketa, kolorea eta motak. Alkandora bat sartu ez gero, lehenengo botoiak kendu beharko dira makinaren barrualdean trabatu daiteke eta. Horrekin batera jantziren batean botoi bat jarri nahi baduzu zuk jarri beharko duzu makina ez baitauka gaitasun hori. Prozesua oso erraza izango da eta argibideak izango ditu erabiltzailea gidatzeko, edozein hizkuntzatan izango da gai erantzuteko modu honetan internazionala bihurtuz. Pantailan erakutsitako aukera desberdinak

hautatu eta arropan aplikatuko ditu. Horrela, jantzi zaharrei bizitza berria emango diegu, modu errazean eta azkarrean, gure kalukuen arabera 1h-30minutu inguru iraungo du eraldaketak, baina hori sartutako jantziaren arabera izango da. Diseinu horrek arropa pertsonalizatuak sortzea ahalbidetuko du, eta horrela, etxean izan ditzakegun arropa zaharrak erabilera berrirako prest egongo dira.

Produktuaren kalitateari eta merkatuaren egoerari dagokionez, prezioaren egokitzapena egin dugu eta gure helburuetako bat bezeroei produktua prezio justuan eskaintzea denez, 1000€-tan salduko dugu. Horren arira, produktuaren iraunkortasuna bermatzeko, 4 urteko bermea izango du edozein arazo izanez gero, berehala konponduko edo dirua itzuliko dugu. Gure bezeroarentzako arreta zerbitzua beti prest egongo da zalantzak argitzeko, telefonoaren edo webgunearen bidez, horrela erosketa esperientzia ahalik eta seguruen eta atseginena izango dela ziurtatuko dugu, guretzako bezeroak pozik egotea garrantzitsua baita.

Salmentarekin jarraituz, gure zerbitzua internazionala izango da, hau da, eskualde desberdinetara zabalduko dugu, honek aukera emango baitigu kultura eta behar desberdinak asetzeko. Bezero bakoitza berezi eta garrantzitsua da guretzat, eta horregatik, mundu guztian zehar, gure zerbitzua eskaintzeko prest gaude.